

Arabako Ogasunak txosna batzuei espedienteak ireki die Ticket Bai ez erabiltzeagatik

AGENTZIAK/LA HAINE :: 11/09/2024

Zigorra aplikatzen bazaie, isun ekonomiko handiak jaso ditzakete, aurreko ekitaldiko negozio kopuruaren %20 edo 20.000 euro gutxienez.

Ticket Bai sistema telematikoa ez erabiltzeagatik 64 zigor espediente zabaldu ditu aurten oraingoz Arabako Ogasunak. Horien artean daude Gasteizko Andre Maria Zuriaren jaietan jarritako txosna batzuk ere, Ramiro Gonzalezek berretsi duenez. Arabako ahaldun nagusiak ez du argitu zehazki zenbat salaketa dituen jarriak, ez eta erabakiak zeini eragiten dion ere: «Ezin ditut identifikatu, legez kontrakoa da hori. Baina, Gasteizko txosnei dagokienez, gutxienerako kopuru bat badago espedienteak irekita daudela jakinarazteko».

Espediente horiek tramitean dira oraindik, beraz, helegitea aurkezteko aukera dute salaketa jaso dutenek. Zigorra aplikatzen bazaie, isun ekonomiko handiak jaso ditzakete. Foru araudiak zehazten duenez, aurreko ekitaldiko negozio kopuruaren %20 edo 20.000 euro gutxienez.

<https://eh.lahaine.org/arabako-ogasunak-txosna-batzuei-espedienteak>